

BALOREZKO PROPOSAMENAK


Ondorengo atalean, gure produktua aurkeztu eta deskribatu aurretik, gure egunerokotasunean identifikatu dugun arazoetako bat planteatu, enpresa honen sorkuntzaren arrazoiak adierazi eta gure helburu nagusia azalduko dugu.

Gaur egungo gizarte honetan, orokorrean, eramaten dugun erritmoa azkartasun handikoa da, eta gauzak azkar eta presaka egitearen ondorioz, xehetasun txikiak ahazten ditugu. Xehetasunetako bat, objektu txikien baina garrantzitsuen galera edota kokapena zein den ahaztea izan daiteke. Arazo honen aurrean, eta taldekide guztiok arazo berdina partekatzen genuela ohartzean, konponbide bat beharrezkoa zela ikusi genuen eta behar hau ase ahal izateko, proiektuari hasiera eman genion irtenbide bat emateko asmoz.

Proiektu honen helburu nagusia giltzen edo galtzeko erraztasuna duten edozein objektu txikiren bilaketa erraztea da, hau da, galdutako objektu horiek denbora luze bilatzen egon beharrean erraztasunak eman eta segundutan hauek lokalizatzea. Horretarako, gure enpresak objektu hauetan erraztasunez itsasten den txip arin bat garatu du.

Diseinuari dagokionez, txipa oso txikia izango da (1cm x 1cm) kompetentziaren tamainarekin konparatuta. “*Ping GPS*” izeneko txipak 3.14cm x 3.14cm-ko neurriak ditu, eta orain arte sortutako txipik txikiena zen. Bateriari dagokionez, gure produktuaren atzealdean, pila sartzeko tapa txiki bat egongo da,

bertan 7,9mm x 3,9mm-ko neurria duen AG3 pila borobila sartu beharko da eta honen goialdean, giltzatakotan sartu ahal izateko zulo txiki bat ikusten da eta honek, 1,5mm-ko altuera izango du hain zuzen ere.



Horretaz gain, konpetentziaren produktuak AEBko merkatua mesedetzen duen bitartean, gureak, Espainiako merkatua sustatzen du. Gainera, AEBko txip bat erostean bidalketa gastuek produktua garestituko lukete, gure kasuan, aldiz, bidelketa gastuak doain izango lirakete; horregatik, Espainia mailan bezero kantitate gehiago irabaziko genituzke. Bestalde, konpetentziaren produktua ez da gure txipa bezain diskretua eta eroso, izan ere, gure produktuari ezarritako neurria giltzaren zati handiko zuloari egokituta egongo da eta neurri hauek txipa edozein lekutan itsasteko aukera emango dute. Eramango duen pegamentu bereziari esker, berrerabiltzeko aukera izango dute bezeroek.

Itxurari dagokionez, gure produktu guztiak zuriak izango dira. Izan ere, erabilgarritasunari jarriko diogu arreta handiena eta kolore zuriak bero gutxiago xurgatzen duenez, zailagoa izango da gure produktua eguzki izpien azpian berotzea, eta, ondorioz, galtzen denean eta eguzki-bero handia jasotzen duenean hardwarea ez da gehiegi berotuko eta erabilgarria izaten jarraituko du. Hala ere, produktuaren salmentak arrakasta izango balu, ez genuke baztertuko etorkizunean kolore gehiago lantzearen ideia, baina kolore aktualaren filosofia antzekoa jarraituz. Hau da, kolore argiak erabiliz. Txip bakoitzak zenbaki ezberdin bat izango du, gero aplikazioarekin bilatu ahal izateko.

Produktua erabili ahal izateko, “*My key finder*” izeneko app bat sortuko dugu, eta, bertan, txipa lokalizatzeko baliabideak eskainiko ditugu. Erabilerraza eta erabilgarria izango da, ez du formatu konplexurik izango, hau da, teknologia berriak menderatzen dituen edozeinek arazorik gabe baliatu dezake gure aplikazioa. Hasteko, txiparen zenbakia aplikazioaren orri nagusian sartu eta “Bilatu” botoiari eman beharko zaio, ondoren, aplikazioak bere lana egin, eta txiparen lokalizazio zehatza jarriko du pantailan. Berrerabiltzeko, zenbakia ezabatu, berriro sartu eta listo.

Hizkuntzari dagokionez, hiru hizkuntzatan egongo da itzulita, euskera, ingelesa eta gaztelanian hain zuzen ere. Hala ere, proiektuak aurrera egingo balu modu arrakastatsuan, beste hizkuntza batzuk eskainiko genituzke.